

Jokorik Gabeko Eguna

(2019ko urriak 29)

1989. urtean sortu zen [Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkarte \(ASAJER\)](#). 30 urteotan ausazko jokoekiko adikzioan eragindako pertsonak eta beren familiak ezagutu ditugu. Gizarteak ausazko jokoetan kontrola mantentzeko arazoak zituen pertsona “biziotsutat” hartzen zuen eta, horren ondorioz, oso modu negatiboan ikusten ziren pertsona horiek. Arazoak zituzten pertsona helduak ikusten genituen, baina baita gazteak ere. Makina txanponjaleen aurrean kontrolik eza zen gugana jotzen zuten pertsonen artean maizen ikusten genuena. Presentziazko bingoa, bingoko bolatxoekin edota kartetan kontrolik eza izateagatik ere bertaritzen zitzaizkigun pertsonak.

ASAJER elkartearen Prebentzioaren garrantzia balioetsi da arazo hori gutxi ezagutu eta aintzatesten zen garaian. 90eko hamarkadan Elkarteak dagoeneko prebentziozko programak, kanpainak, materialak edota kolektiboenganako hurbilpena gauzatzen zituen joko patologikoa ezagutarazteko xedez. Alde batetik gizarteak errealitatea ezagutzea zen gure asmoa, aurreiritzi hori aldatu eta eragindako pertsonak babesa izan zezaten eta, beste alde batetik, arazo honetan prebentzioa bideratzeko informazioa hedatu ahal izatea.

Ausazko jokoaren eta hark gizartearen sortzen zituen arazoak ezagutzeko egiten ziren ikerketak ezdeusak ziren ia. Berez, Gasteizen egin ziren azterketak Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkartearen ekimenez burutu ziren.

Datuak elementu arriskatuak ziren, kontuan izanik “eragindako asko” edota “eragindako gutxi” erako kontzeptuak balioesten zirela espazio ezberdinetatik. Eta balioespen horrek baldintzatzen zuen arazoari garrantzia eman ala ez ematea.

Azken urteotan jokora iristeko beste modu batzuk agertu dira (online jokoak), eta baita beste zenbait joko ere, esate baterako, kirol-apustuak. Ireki diren jokorako espazioak ikusgai daude. Eta adin txikikoak eta gazteak arriskupean den biztanleria modura azpimarratu dira. ASAJER elkarteak urteak daramatza biztanleria horien inguruan hitz egiten, eta haiek kontuan hartzea premiazkoa dela adierazten. Gazteei zuzendutako prebentziozko kanpainak egin ditugu eta gurasoei zuzendutako kanpainak ere bai, gaiaren inguruko informazioa eman eta eredu modura zein garrantzitsu diren jabe zitezen.

Jokorik gabeko Egunean Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkarteak (ASAJER) beharrezkotzat jotzen du:

- Prebentzioa, ausazko jokoak eta harekin lotutako arazoak adin txikikoengana eta gazteengana hurbiltzeko programak abian jartzea garrantzitsua da. Adierazi behar da Elkarteak eskola-programa bat ipini zuela martxan, hainbat urtetan Gasteizko ikastetxeek aintzatetsi ez zutena.
- Ekimen ezberdinen bidez ausazko jokoak eta harekin lotutako arazoak biztanleria orokorrari hurbiltzeko jarraitzeko jokabideak ere jarraitu egin behar du. Garrantzitsua da zer nolako eragin eta ondorioak izan ditzakeen konturatzea.
- Ausazko jokoaren publizitatearen aurrean jarrera kritikoa hartzea, eta ez soilik joko pribatuaren aurrean, baina joko publikoaren aurrean, hark permisibitate handiagoa baitu. Garrantzitsua da jokoaren Publizitatea behingoz arautzea.
- Informazioak eta kontzientziazioak sentsibilizazioa ekar dezaketela. Joko-enpresetan eta jokoak saltzen duten enpresetan, jokoak dagoen eremuetan, prestatutako langileak egon beharko lirateke, gaiaren inguruko informazioa dutenak eta, zenbait jokabideren aurrean, modu egokian esku-hartzen dakitenak, bulkadak eramanda jokatzeko duen pertsonak bere portaera geratu eta hari pentsatzeko eremu bat emateko.
- Joko Arduratsuz hitz egiten da, baina funtsezkoa da Jokoaren aurreko Ardura: informatu, ezagutu eta, horren ondorioz, esku-hartzea.
- Hainbat gizarte-kolektiboren ibilbidea balioan jar dadila, esate baterako, ASAJE Elkartearena, 30 urte baitaramatza lanean jokoekiko Adikzioaren Prebentzioaren alde eta eragindako pertsonen babesa emanez.